

HERNANIKO Kronika

TOKIKOM

2014ko irailaren 21a, ostirala ::: 4.832 zk. ::: www.kronika.net

■ EUSKAL JAIAK

Sagarra, sagardoa eta trikitixa konbinazio perfektua, euskal giroan jarraitzeko

Eguerdia partean izango da festa: sagardo dastatzea eta trikitixa txapelketa Plazan izango dira; eta pelota partiduak jokatu dira Tilosetako frontoian.

BASERRITARREZ jantzi zen atzo Hernani, Euskal Jaietan murgiltzeko. Euskal trajeak jantzi eta zaldiak, behiak, txerriak, oiloak eta beste hainbat animalia gertutik ikustera hurbildu ziren asko, Tilosetara. Artzaintza lanen erakustaldiak ere, piztu zuen askoren interesa: ardiak jetzi, ilea moztu, artaldea batera eta bestera mugitu... Txikienez gozatu ederra hartu zuten egun osoan: aintzinako jokoak, erraldoi eta buruhaundiak, taillerak... Herri kirolek ere jarri zuten saltsa: Hernanin aurreneko, emakumeak aritu ziren aizkoran; bi beterano izan zituzten ondoan: Paolla eta Larra. Arratsaldean musika izan zen nagusi: erromeria Alaken taldearen eskutik, Plaza Berrin; eta Musika Bandaren emanaldia, arkupetan. Festa bukatzeko, beste tradizio bat: sardin jatea.

Jaiak segida, gaur

Festa giroan segi nahi duenak aukera ederra du gaurkoan ere. Dianak esnatuko du herria, goizean goiz. Festa ordea, eguerdi partean izango da. Sagarra eta Sagardoren eguna ospatuko da Plazan 'Tolare' kofradiak antolatuta. 11:30etan hasiko da sagardo dastaketa Akarregi, Alberro, Altzueta, Goiko-Lastaola, Iparragirre, Itxasburu, Larre Gain, Olaizola, Otsua-enea, Rufino eta Zelaiaren eskutik. Sagardoa nola egiten den erakutsiko du Barkaiztegiko Joxe Mari Irizarrek. Tarte horretan jokatu da baita ere, Trikitixa Txapelketaren hamaseigarren edizioa. Eta nola ez, euskal giroko festa batean falta ezin diren pelota partiduak ere badira gaur: Tilosetan, 11:30etan. ■



Aizkoran eta harria jasotzen emakumeak aritu ziren atzo.



Eta ume jokoetan ere, izan zen harria altxatzen ikasteko aukera.



Aintzinako jokoek gaztetxo asko erakartzen dituzte.



Hernaniko talogileen esku ona probatzeko aukera izan zuten atzo, askok eta askok.



Ganadu azokak jendetza biltzen du.



Erromeria izan zen arratsaldeko plana!



Musika Bandak jarri zion doinua, egunari.



■ ELIZA

Katekesian izen ematea

Lehen Hezkuntzan hasi edo 6 urte beteko dituzten gaztetxo askok aurten hasiko dute katekesia. Hernaniko Parrokiarteak jakinarazi duenez, gurasoek izena emateko hiru egun izango dituzte: irailaren 29 eta 30a, eta urriaren 1a. Elkano kaleko lokaletik pasa behar dute, 17:00etatik 18:00etara. ■

■ OSIÑAGA AUZOA

Bilera, gaur

Osiñagako auzo elkarteak bilera deitu du gaur Arriatsuko eskolan, 12:00etan. Aztertuko dituzte: urte bukaerako egutegia, auzoaren beharrak eta auzolana. ■

■ FUTBOLA

Irabazi, erraz

Bi partidu eta bi garaipen; ederki hasi du Erregional Ohorezko mailako taldeak liga. Antzuolaren kontra jokatu zuten atzo, eta 1-4 irabazi zuten. ■

■ XALAPARTA

Aranora martxa, igandean

Datorren igandean Aranora martxa antolatu dute Xalaparta elkarteak kideek. 08:30etan aterako da autobusa Besabira, martxa 09:00etan hasteko. Zuzenean bazkaria dijoazenek 12:00etan dute autobusa, Xalapartatik. Aranoko kontzejuan bazkaldu, eta toka jokoan ibiliko dira. Izena emateko lista elkartearen dago jarria. ■

■ UDALA

Erregistroa, sarreran

Bihartik aurrera Udaleko harre-erregistroa sarreran egongo da, berriz ere. ■

■ HIRIGINTZA BATZORDEA

Eskaerak, aztergai

Hirigintza Batzordea bilduko da Udalean, bihar, 18:30etan. Zazpi puntu aztertuko dituzte, guztiak eskaera pribatuak. ■

HERNANI HIZKUNTZAK
ENGLISH
(GURE INGELESETXEA)

IRAKASLE NATIBOAK

Zorionak! 2013-14ko azterketa publikoen emaitzengatik:
C1 ("Advanced"), B2 ("First") eta B1 ("PET").

2014-15eko ikastaroaren matrikula irekita
12.00 - 13.30 eta 18.30 - 20.00

hernanihizkuntzak@gmail.com

Deitu Alan edo Joe **943 33 11 08** Kale Nagusia 41 - 1

Adarraga
HERNANI (Gipuzkoa)

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 - ☎ 943 33 15 06

☎ **TELEFONOAK** • **TAXIAK**: 943 550093 • **UDALTZAINGOA**: 092 • **DYA**: 943 464622
 • **AUTOBUSAK**: Garayar: 943 556658, Arelaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • **ANBULATORIOA**: 943 006666 - 943 203020 • **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK**: 943 331103
 ☪ **FARMAZIAK** • **Egunez**: Gomez Kale Nagusia 14 943 554892 • **Gauetz**: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURALDIA **GAUR** Zeruan ez da aldaketa askorik espero: eguzkia eta lainoak tartekatuko dira. Tenperatura bai ordea. Behera egingo du, koska bat: Min.16° / Max.24°

BIHAR Giro nahasia espero da. Tarteka lainoak ugaritu eta zaparradak botako ditu. Temperatura, freskoago: Min.16° / Max.22°

MUGIKORTASUN ASTEA



Ainhoa Gasparrek eman zizkien argibideak atzo, ibilbidea egin eta kirol makinaren funtzionamendua ezagutzera gerturatu ziren herritarrei.

Hernani bizikleta gaineko ikuspuntutik ezagutzeko aukera

Bizikletarekin lotutako bi aukera izango dira gaur: ibilbidea eta bide heziketa. Atzo herritar mordoxkak egin zuen oinezko ibilbidea.

MUGITZEKO alternatibak zeintzuk diren erakustea da Mugikortasun Astearen helburuetako bat. Eta asteburuan, horrekin lotutako ekitaldi ugari ari dira izaten. Gaurkoan bizikleta izango da garraibidea. Bi aukera jarri dituzte: buelta bat eman edo bide heziketako saioa jaso.

Bidegorri sarea ezagutzeko aukera ederra

Hernani bizikleta gainean ezagutu nahi dutenek aukera ederra dute JOCC taldeak antolatutako irteerarekin. Goizeko 09:30etan egin dute zita, Plaza Berrin, Cuevas farmaziaren parean. 5 kilometro inguruko buelta egingo dute, eta ibilbidea Portalondon hasi eta bukatuko da. Bidetik

zeharkatuko dituzte: Zinkoenea, Balantxa, Karabel, Landare, Zubiondo industriagunea, Florida, Sagastialde, Antziola, Txillida kalea, Latsunbeberri, Marieltus, Urbietia, Izpizua, Txirrita, Lizeaga, Paradorea, Lizeaga eta Atzieta. Hernaniko bidegorri sarea ezagutzeko aukera ederra izango da.

Beste aukera da, Atsegindegian izango den Bide Heziketa saiora joatea. Zirkuitu bat jarri dute, eta bertan erakutsiko dituzte bizikleta gainean ondo eta seguru ibiltzeko jakin beharrekoak.

Makinaren erabilera ezagutu zuten atzo

Herritar dezente animatu zen atzo, herrian barrena egin

zuten ibilbidera. Ariketa fisikoa egiteak duen garrantzia azpimarratu nahi zuten atzoko irteerarekin, eta bide batez, 3garren adineko pertsonentzat herrian zehar jarri dituzten makinak erakutsi. Kirola egiteko makinak dira, eta lau puntutan jarri dituzte: Goiz Eguzki, Zikuñaga, Atletismo pista eta Ave Marian.

Bost kilometro inguruko buelta egin zuten, eta Ainhoa Gasparren azalpenak entzun zituzten: makinak nola erabili behar diren, zertarako diren egokiak... Galderak egin eta zalantzak argitzeko aukera izan zuten. Eta buelta bukatuta, liburuxka bat jaso zuten, Hernanin oinez egiteko dau den zirkuitu ezberdinak biltzen dituenak. ||

ERRUGBIA OHOREZKO MAILA

Esku hutsik, etxera bueltan

Atsedenaldira arte eutsi zion Hernanik, baina madrildarrak gehiago izan ziren, 40-15. CRC Pozuelo dute buruan orain trikoloreek.

MALDAN gora hasi du denboraldia Hernanik. Bi arerio gogor tokatu zaizkio denboraldiko aurreneko bi partiduetan. Complutenseko zelaian jokatu zuten atzo, eta etxekoak izan ziren nagusi, 40-15.

Cisnerosek egindako hiru zigor kolpek markatu zuten partidua hasiera. Hernani hortzak estutu, eta dena emateko prest

zen. 23' etorrian zen entsaioa: Leonetek egin zuen, eta gauzatu ostean, 9-7 ziren atzetik. Zazpi minutura, beste hiru puntu egin zituzten trikoloreek, Larretxearen zigor kolpeari esker. Atsedenaldirako gutxi falta zela ordea, madrildarrek egin eta gauzatu zuten entsaioa; 16-10 aurreratu ziren.

Bigarren zatia antzeko hasi

zen, entsaio banarekin; Hernanikoa Leonetek egin zuen, baina ez zuten gauzatu; 23-15 ziren aurretik madrildarrak. Eta handik aurrera nagusi izan ziren: zigor kolpea, bi entsaio egin eta gauzatu, eta bonus ofentsiboa lortu zuten. Azken emaitza, 40-15. CRC Pozuelo hartuko du Landaren Hernanik, datorren asteburuan. ||

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

AMAIA GARCIA



Amodioa, detektibeak eta familiarteko istorio gogorra

Sail ofiziala martxan da. True Detective telesailaren antza handia du *Isla mínima* pelikula. Alberto Rodriguezek bi detektiberen istorioa kontatzen du pelikulan. Gidoia oso ondo eramana dago, baina telesail estatu batuararekin duen antzekotasunak ez dit utzi garbi aztertzen. Silent hear pelikulan, emakume batek bere

heriotza noiz izango den erabaki du, eta azken asteburua familia guztiarekin pasatzea erabaki du. Oso istorio gogorra, goizeko ordu horietan ikusteko. Eta hirugarren aukera, François Ozonen *Une nouvelle amie*. Filmak txunditua utzi du prentsa eta publikoa. Mas-korra lortzeko aukera asko ditu pelikula. ●

67KO KINTOA

Bazkaria hilaren 27an, Pedro Marin

Bigarren urtez, 1967an jaioetakoak bazkari eder baten bueltan elkartuko dira. Hitzordua irailaren 27an jarri dute, Portuko Pedro Mari tabernan. Bazkarira joan nahi dutenek izena eman behar dute telefono hauetako batera deituta: Pablo 688 666 956 edo Bernar 655 712 498. ||

ARGIA EGUNA

Txartelak salgai Oinddi eta Txilin

Argia eguna ospatuko dute irailaren 27an, eta horren bueltan hainbat ekitaldi antolatuta dituzte. Irailaren 26an kontzertua antolatu dute Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean: Mikel Urdangarin, Anari, Pier Paul Berzaitz, Petti, Estitxu Pinatxo, Alboka taldea, Bide Ertzean eta Jon Basagurenaren eskutik. Eta Argia egunean bertan, bazkari ekologikoa izango da, garaiko eta Euskal Herriko produktuekin. Bi ekitaldietarako sarrerak salgai daude Oinddi eta Txilin; bi kasuetan, 15 euro balio dute txartelek. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

✚

ESKERTZA

Pako Atxaga Iturbe

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Haren emazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2014ko irailaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldaria behar da. Deitu: 943 33 02 91

Pisua alokagai, baserri batean. Hernanitik km 1era. Terraza handia. Prezioa: 650 €. Deitu: 650 714 090

Haurrak zainduko nituzke arratsaldetan. Esperientziadun neska naiz. Deitu: 685 734 410

Klase partikularak eskaintzen ditut: matematika, kimika, fisika eta biologia. Unibertsitateko ikaslea naiz. Batxilergoko 1 mailatik behera, edozein mailatan. Deitu: 650 308 928

Pisua salgai edo alokairuan. Sala, bi logela, komuna eta sukaldea. Sukalde ekipatua, 68 metro. Hernanin, Latsunbe auzoan. Deitu: 609 412 757

95 m2-ko PISUA ERDIALDEAN SALGAI, dena kanpoaldera, amueblatua eta eguzkitsua. Deitu: 943 33 25 56

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)